

# PACO BUENORI ESKER ONEZ.

**Mikel Ugalde**

*Camorrista, boxeador,  
zurrâtelas con el viento.  
(Antonio Machado)*

Hasieratik esan beharra dut ez natorrela bat Antonio Machadok dioenarekin. Bestelakoa da Paco Bueno bezalako boxealariak dudan iritzia, besteak beste, asko zor diodalako. Gure herritarri eskerrak, harro sentitu nintzen erreteriar bezala. Bestek txalotzen zutela ikusten nuen, maila handiko boxealaritzat zeukaten, miretsi egiten zuten eta gainera erreteriarra zen. Zortzi-hamar urteko mutiko bezala pozik nengoen.

Ez nuen, jakina, Pako Buenori buruzko ezagutza handirik, besteei entzundakoak gogoan hartzen nituen eta niretzat mito bat zen. Berari eskerrak erreteriar nintzela konturatzen nintzen.

Gogoak izango dituzue, gerra amaieraren bueltan jaio zinetenok batik bat, bazirela gure herrian halako arrakasta sortarazten zituzten ekintzaldiak. Touring futbol taldeak koparen bat irabazi eta udaletxera joan ohi zirenekoa, esaterako. Garai hartan pare-parean bizi ginen eta etxeko baloikotik ikusten nituen plazan bildutako jende multzo handi baten aurrean, etxafuegoak lagun zituztela, kopa harro-harro erakusten. Ez geunden, arrano polak!, gure futbol taldea saltzeko. Erreteriak, nahiz eta Touring Renteriakoa izan, ekipo handi bat zuen eta herritar zaletu zoriontsua sentitzen nintzen.

Gogoan izango duzue zuetako askok Viteri eskoletan, duela urte asko, egin zen erakusketa berezi hura gure herriko lantegietan sortzen ziren produktuekin eginikoa. Lantegi handi eta txikietakoko emaitzak ikus zitzakeen bertaratuak. Paperbobina handiak, Carasako koloniak, garai hartako lantegietako gailetak, sukaldeak eta era guztietakoa. "Europa osoan ez zegok, Erreteriarren neurria gogoan hartuz, hemen bezainbat gauza egiten dituen herririk" entzun izan nuen behin eta birritan. Egia zen ala ez, beste kontu bat da, baina sinestu egin nuen eta Erreteriar hain herri famatua izateaz harro sentitu nintzen berriro.

Nork ez ditu gogoan, Lapaza alkate zela, trainerua martxan jartzeak herrian sortu zituen bizi-pozak. Hura zen hura jendearen emana! Herria ia erabat hutsik Kontxako estropadetan. Banderarik ez zuen lortu baina jendearen animua, txaloa

eta laguntza ez zitzaion faltako Santanaren koadrilari, ezta herriko kale eta tabernetan maiz kantatu ohi zen honako hau ere: "Por el rio Oyarzun bajaba una trainera, rumba larrumba larrun...". Estropada irabazteko ez ginen gauza izan "lehorrekoak" baitziren gure arraunlariak. Hori bai, ez zen Erreteriar koadrilari sokatiran irabaz diezaiokeen talderik. Indartsuena zen gurea, hala uste genuen behintzat. Sinestu egin nuen eta pozik gure herrian horrelako ekintzak egiteko gai ginelako.

Hainbat oroitzapen aipa daiteke, baina hasieran esan bezala, Paco Buenoren itzalak eragin aparta izan zuen nire bizitzan. Ez zen edozein gure Paco. Ez dut gezur handirik esango niretzako eredu izatera iritsi izan zela aitortzen baldin badut. Gainera, nire haurtzaroan oso lotua sentitzen nintzen boxealariarekin. Oikian iragandako denboraldiek zer ikusi handia izan zuten horretan.

Kontua da, orain bezala, txikitik sudurmotz nintzela eta boxerorako afizio izugarria nuela, eta adin beretsuko oikiarrekin, halako boxeo konbateak antolatzen zituztelako, borrokatu behar izaten nuela bertako plazan. Oikiarrak, bestalde, onak dira elizatik kanpo ere jendea bataiatzen. Orixek inoiz esan izan duen bezala, ohikoa zen jendea ezizenez deitzea, ezagunagoa izatea. Are gehiago, ezizena bertakotzat jotzen zutenaren adierazle izan ohi zen herri txikietan. Niri ere ezizena egokitu zitzaidan eta oikiar askorentzat oraindik ere Paco Bueno nauzue ni neu ere. Bertako eskolan, lagunartean, plazan, erromerietan, Paco Bueno bezala ezagutzen ninduten. Ezizena ere gure boxealariari zor diot eta oroitzapen haiek hona ekarriz eskertu nahi diot. Esan gabe doa, zorionez, nire boxealaritza bertan behera gelditu zela, ematekoak baino hartzekoak gehiago izango bainituen bide horretatik jarraitu izan banu.

Gogoan dut Parte Zaharreko tabernan haurtzaroko pasadizo hauek kontatu nizkionean Paco Buenok eskaini zidan irrifar gozoa. Eskerrik asko. Kanpokoek gure herritarra miresten zutela ikusterakoan ni neu erreteriar nintzela jabetu nintzen.

